

ANIZTASUNAREN KUDEAKETA DEMOKRATIKOA NAFARROAN

2019

Euskarabidea – Euskararen Nafar Institutuaren eta
Eusko Ikaskuntzaren arteko
Lankidetza

Nafarroako  Gobierno
Gobernua de Navarra

 **EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

AURKIBIDEA

01 / SARRERA.....	3
01.1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA	3
01.2. HELBURUAK	4
02/ METODOLOGIA.....	5
02.1 KRONOGRAMA	5
02.2 TALDE ERAGILEA (maiatza-ekaina-azaroa)	5
02.3 HERRITAR MAHAIK ETA GIZARTE FOROAK (URRIA-AZAROA)	6
03 / GAUZATUTAKO EKINTZEN DESKRIBAPENA	8
03.1. HERRITARREN MAHAIK	8
BAZTANEKO HERRITAR MAHAIA	10
BERRIOZARKO HERRITAR MAHAIA.....	13
CASTEJONEKO HERRITAR MAHAIA	16
03.2. GIZARTE FOROAK	21
03.2.1. GIZARTE FOROEN LABURPENA	22
BAZTANEKO GIZARTE FOROA.....	22
BERRIOZARREKO GIZARTE FOROA	26
CASTEJONEKO GIZARTE FOROA.....	29
Herriz-herri	32
Azken gogoeta	33

01 / SARRERA

Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa egitasmoa Eusko Ikaskuntza eta Nafarroako Gobernuaren arteko lankidetzaren markoan kokatzen da. Egitasmo honek 2018an elkarlanean gauzatutako *Gure jendea, aniztasuna eta kohesio bideak* ekimenean sakontzea bilatu du, eta bi ardatz nagusi hauetan jarri du azpimarra: bizikidetzaren aniztasunean eta proiektu partekatu baterako kultura demokratikoan. Helburu orokor gisa, Nafarroako Gobernuari eskaini nahi izan diogu bizikidetzarako erreferentziarako marko baterako hurbilketa eta proiektu partekatu baterako aukeren azterketa.

Abiapuntuko galderak ez dira izan nolana hikoak: Nola bilatu askoren arteko kontsentsuak lurralde moduan aurrera egiteko eta proiektu partekatuak sortzeko? Proiektu partekatu horien mesederako, zein erreferentziarako marko beharko genuke identifikazio diferenteetako gizabanakoek eta taldeek elkarlanean aritzeko, edozeinek sentitu dezan bere identitate propioa garatzeko markoa dela; eta, beraz, norberaren eta bere ondorengoen bizitza proiektua garatzeko marko egokia dela irizteko? Immigrazioa gertaera iraunkorra eta dugun estruktura demografikoaren eratzaileria izanik, nola kudeatu aniztasuna Nafarroako berezko proiektu politiko gisa, etorkizuneko elementu gisa? Proiektu horren bidean, nolako balio marko partekatua irudika genezake euskararen babesarako eta sustapenerako?

Munta handiko galderak, ikusten dugunez, erantzun zaila dutenak. Eta horrela onartu dugu: ez diegu erantzun biribilik eman galdera horiei; hurbiltzen saiatu gara, ordea, eta uste dugu datu interesgarriak bildu ditugula aurrerantzean ere gaian sakontzen jarraitzeko. Garrantzi berezia eman diegu euskarari buruzko jarreraren diagnosiari eta diskurtso berritzaileen eraikuntzarako aukerei.

01.1. PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Nafarroako lurraldea esparru gisa hartuta eta bertako jendearen bizikidetzan sakontzeko helburuarekin, aniztasunaren kontzeptua hainbat ikuspuntutatik jorratu du proiektuak. Batzuk antzinatez datoz, hizkuntza eta kultura desberdinei lotuak; beste batzuk berriagoak dira, identitate nazionala ulertzeko modu berriei lotuak; eta beste batzuk are berriagoak dira, migrazio berriei lotuak, alegia, eta Nafarroako aniztasunaren panorama are gehiago korapilatzen dute. Puntu horiek aztertzeak nafar herritarren definizio berri batera eraman gaitzake, elkarbizitza zailtzen duten oztopoak gainditzen lagunduko diguna.

Eusko Ikaskuntzak prozesu ireki, parte-hartzaile eta deliberatzaile baten bidez jardun du Nafarroan. Prozesu horretan, herritarren, gizarte-eragileen eta adituen ordezkariak zabal batek parte hartzea nahi izan da, kultura eta gizartearen kohesiorako eta elkartasunerako giltzarri gisa hartuta, ikuspegi inklusibo, integratzaile eta plural batetik, herritarrentzat garrantzitsuak edo/eta ezinbestekoak diren erronkak izendatzeko.

Gure lurraldearen kultura, geografia eta identitate-aniztasunari erantzuten dioten hiru udalerritan gauzatu da proiektua:

- **Baztan**
- **Berriozar**
- **Castejon**

Udalerri horiek aukeratu dira proiektu hau garatzeko kultura eta nortasun arloetan aniztasun eredu desberdinak irudikatzen dituztelako eta immigrazioari dagokionez errealitate sozio-demografiko oso desberdinak dituztelako.

"Aniztasunaren kudeaketa demokratikorako" bide berriak "eragiteko" helburu hartuta, prozesu parte-hartzaile bat ireki nahi izan da. Prozesuaren buru izan den Talde Eragile edo Talde Motor bat sortu da, teknikariz eta gaian adituak diren pertsonen osatua. Talde horren eginkizunak herritarrei egin behar zitzaizkien galderak definitzea izan da. Horren ostean, herritarrentzako bi gune parte-hartzaile jarri dira martxan. Hala, hiru udalerrietan eratu dira Komunitate Gunea edo Herritar Mahaia, non bertako herritarrek Talde Eragileak egindako galderak erantzun ahal izan dituzten, eta Sare Gunea edo Gizarte Foroa, tokiko komunitateetako eragileen, teknikarien eta ordezkarien topaketa, eta bertan Herritar Mahaietan ateratako emaitzak kontrastatzeko aukera izan dute.

01.2. HELBURUA

Ezberdinen arteko sinergiak eragitea eta Nafarroako herritarrengan elkarbizitzarako elementu posibleak lantzea izan dira proiektuaren helburuak.

Helburu nagusiak:

- ✓ Bizikidetzarako (edo proiektu partekatu baterako) erreferentzia esparru bat eraikitzeko tresnak eskaintzea.
- ✓ Nafarroako aniztasuna modu demokratikoan kudeatzen lagunduko duen argudio sorta bati ekitea elkarlanean.
- ✓ Nafarroako Gobernuaren beraren eskariari men eginez, euskararen aurrean eta diskurtso berritzaileak eraikitzeko aukeretan dauden iritzien eta jarrerren diagnostikoa egitea.

Helburu horiek lortzeko, *bizikidetz*a eta *kultura demokratiko* ardatzei erreparatu diegu, esparru komuna sortzea ahalbidetuko digun estrategiaz gogoeta egiteko eta, hortaz, demokratizazioan sakontzeko. Erabaki estrategikoak elkarlanean hartzea ahalbidetuko duten tresnei buruz hausnartu nahi izan dugu. Horretarako, adituen, eragileen eta herritarren arteko lankidetz ahalbidetuko duten esparruak eraiki nahi izan ditugu.

Azkenik, proiektuak arreta berezia jarri du herritarren aniztasuna bera islatuta gera zedin antolatu diren eztabaida guneetan, ahots guztiak entzute aldera. Hartara, kontuan hartu dira parte hartzaileen generoa, adina, baliabide ekonomikoak, ideologia, herri mailako konpromisoa, eta abar.

02/ METODOLOGIA

Proiektua 2019. urtean zehar garatu da Eusko Ikaskuntzako lan talde profesionalaren koordinazioaren eta adituen eta teknikarien laguntzarekin. Hartara, Julen Zabaloren (EHU) zuzendaritza pean proiektuaren aurre diseinu bat egin zen eta adituz eta teknikariz osaturiko Talde Eragilea sortu zen. Ondoren, Herritar Mahaiak eta Gizarte Foroak gauzatu ziren 2019ko udazkenean zehar. Honen prozesu guztiaren ondorioak hemen aurkezten den txostenean jaso dira 2019ko abenduan.

02.1 KRONOGRAMA

	APIRILA	MAIATZA	EKAINA	UZTAILA	ABUZTUA	IRAILA	URRIA	AZAROA	ABENDUA
Aurre diseinua									
Talde Eragilea									
Herritar Mahaiak									
Gizarte Foroak									
Txostena									

02.2 TALDE ERAGILEA (MAIATZA-EKAINA-AZAROA)

Funtzioak: prozesuaren zuzendaritza. Prozesuan zehar egin diren galderak zehaztea. Pertsona esanguratsuen hasierako identifikazioa. Abian dauden esperientzien bilketa.

Talde Eragilearen osaera:

Talde hau Elizondoko, Berriozarreko eta Castejongo udaletako zenbait teknikaririk, Eusko Ikaskuntzako talde adituak, proiektuaren zuzendari zientifikoa den Julen Zabalok (EHU), Parte Hartuz ikerketa taldeak, Nafarroako bi Unibertsitateen eta gaian aditu diren zenbait eragilek eta Nafarroako gizarte zibilaren pertsona esanguratsuek osatzen dute:

- Udaletako teknikariak; Baztango Euskara teknikaria, Berriozarreko Kultura Teknikaria eta Castejoneko Kultura Teknikaria.
- Eusko Ikaskuntzako lan taldea, Amaia Nausia Pimoulier eta Josune Etxaniz

- Proiektuaren zuzendari zientifikoa; Julen Zabalo, EHUko irakaslea eta Parte Hartuz ikerketa taldeko zuzendaria.
- Gaian adituak; David Thunder (Nafarroako Unibertsitatea), Txuri Olo (Nafarroako Unibertsitate Publikoa), Txoli Mateos (Euskal Herriko Unibertsitatea), Iker Iraola (Euskal Herriko Unibertsitatea), Eduardo Ruiz Vieytez (Deustuko Unibertsitatea), Gaizka Aranguren (Labrit Multimedia), Aitziber Perez (Berriozarreko Ikastetxe publikoa).

Talde Eragilearen bilera:

- Lehenengo bilera (2019-05-09)
- Bigarren bilera (2019-05-21)
- Hirugarren bilera (2019-05-30)
- Laugarren bilera (2019-06-20)
- Bosgarren bilera (2019-10-24)

02.3 HERRITAR MAHAIK ETA GIZARTE FOROAK (URRIA-AZAROA)

Landa lanean erabilitako teknikak *metodologia parte hartzaileari* dagozkio. Bi fase bereizi dira prozesu honen barnean, "Aniztasunaren kudeaketa demokratikorako" bide berriak "eragiteko" helburuarekin: herritarren mahaiak eta gizarte foroak gauzatu dira. Arestian aipatutako herri bakoitzean, fase bakoitzeko saio bana egin da. Hau da, osotara, hiru saio egin dira Herritarren Mahaiekin eta beste hiru Gizarte Foroekin, bat herri bakoitzeko. Herritarren Mahaiak, tokiko komunitateetako eragileen, teknikarien eta ordezkarien topaketa izan da. Gizarte Foroetan, berriz, herritarrek aukera izan dute Herritarren Mahaietan egindako lana kontrastatzeko eta bizikidetzan ustez lagundu lezakeen norabide berria sortzeko.

Proiektua aurrera eramateko erabili den lagina 91 pertsonakoa izan da; 47 dira Herritarren Mahaietan parte hartu duten eragileak, eta gainerako 44ak Gizarte Foroetan parte hartutakoak dira, hain zuzen ere. Horietatik, 49 emakumeak dira eta 42 gizonak; gainera, 91 horietatik 34 baino gehiago euskaldunak dira. Azkenik, jatorriari dagokionez, 13 partaide ez dira Nafarroan sortuak. Lagin hau aldeztu aurretik zehaztutakoa da. Izan ere, aniztasunaren kudeaketa bera landuko den proiektuan, partaideen arteko aniztasuna ere bermatu nahi izan da.

Partaideen soslaiak gehiago zehazte aldera, Herritarren Mahaietan parte hartu duten eragileei dagokienez, Baztanen osotara, hamazazpi partaide izan dira. Hauetatik hamar emakumeak eta beste zazpiak gizonak dira; emakumeetatik zazpi euskaldunak dira eta gizonetatik berriz, lau. Jatorriari erreparatu, hiru emakume eta hiru gizon Euskal Herritik kanpokoak dira; erdaldunak diren horiek, hain zuzen ere.

Berriozarreko kasuan, beste hamazazpi pertsona batu ziren Herritarren Mahaietan; horietatik bederatzik emakumeak dira eta zortzi gizonak. Emakumeen artean euskaldun bakarra dago,

euskaldun osoa ez dena. Bestetik, gizonen kasuan, bi euskaldun aurkitzen dira. Azkenik, partaideetatik gizon bat eta emakume bi Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira.

Herritarren Mahaien soslaiekin amaitzeko, Castejongo partaideak ditugu. Sei emakumez eta zazpi gizonaz osatutako taldea da. Beraz, orotara hamahiru agentek parte hartu dute, denak erdaldunak. Horietatik hiru gizon eta emakume bat Euskal Herritik kanpo jaiotakoak dira.

Nafarroako lurraldean egin diren Herritarren Mahaietan, guztira, 47 eragilek parte hartu dute. Horietatik, 25 emakumeak dira, eta gainerako 22ak, gizonak. 14 euskaldunak dira, 8 emakume eta 6 gizon. Azkenik, jatorriari dagokionez, 13 partaide etorkinak dira, zazpi gizon eta sei emakume.

Gizarte Foroetan parte hartu duten eragileen soslaia zehazteko, prozesu bera erabili da. Hala, Elizondon hamazazpik parte hartu zuten, bederatzik emakume eta zortzik gizon, horien guztien artean gizon erdaldun bakarra zegoen, eta denak euskal herritarrek izan ziren.

Berriozarreko kasuan, hamabi pertsona hurbildu ziren Gizarte Foroetan parte hartzeko, zazpi emakume eta bost gizon. Horietatik, behintzat, bi gizon eta beste bi emakume euskaldun daude. Jakina da baten bat gehiago ere badagoela, baina ez dakigu zenbat, eta denak bertakoak.

Azkenik, Castejoni erreparatuz, hamabost pertsonak parte hartu dute, zazpi gizonaz eta zortzik emakumez. Hauek guztiak erdaldunak dira eta denak bertakoak ere bai.

EKIMENA	PARTE- HARTZAILEAK OSOTARA	EMAKUMEAK		GIZON AK
		KOP.	%	KOP.
Herritarren Mahaia Baztan	17	10	58,8	7
Herritarren Mahaia Berriozar	17	9	52,9	8
Herritarren Mahaia Castejón	13	6	46,1	7
Herritarren Mahiak GUZTIRA	47	25	53,1	22
Gizarte Foroa Baztan	17	9	52,9	8
Gizarte Foroa Berriozar	12	7	58,3	5
Gizarte Foroa Castejón	15	8	53,3	7
Gizarte Foroa GUZTIRA	44	20	45,4	24
GUZTIRA	91	49	53,8	42

Hortaz, orotara, Gizarte Foroetan 44 eragilek parte hartu dute -24 emakumek eta 20 gizonek-hain zuzen ere. Oraingo honetan, 20 pertsona baino gehiago euskaldunak izan dira; baina horietatik 16 baztandarrak dira eta Castejonen ez da egon euskal hiztunik.

Nahiz eta kopuruari begiratuta, emakumeak gizonak baino gehiago izan diren, mahai gehienetan gizonak izan dira elkarrizketen norabidea zuzendu dutenak. Era berean, gizonak izan dira hitza denbora gehienez hartu dutenak eta ariketen edota galderen inizatiba hartu dutenak.

Horren harira, nabarmentzekoa da Gizarte Foroetan ez duela etorkin batek ere parte hartu. Modu berean, euskaldun kopuruak gora egin du nagusiki Elizondon, baita Berriozarren ere. Pentsa daiteke ez dela kasualitatea Gizarte Foroetan etorkinik ez egotea. Izan ere, bigarren fase honetan, erakundeen ordezkariak parte hartu dute, nahiz eta banako gisa egin. Ondoriozta genezake, batetik, etorkinek, oro har, erakundeetan eta herri taldeetan parte hartzeko oztopoak izaten dituztela; edota, bestetik, arrazoi desberdinak direla medio, haien komunitate taldeetan bakarrik mugitzea nahiago dutela. Edozein delarik partaidetzarik ezaren zioa, argi geratu da immigrazioak ez duela nahikoa indarrik bere egoeraz eta iritziez ahots propioaz hitz egiteko gainerako herri taldeekin batera.

Horrez gain, aipatzekoa da, orokorrean, aniztasun ideologiko handiagoa espero genuela. Izan ere, ez dute ia presentziarik izan eskumako ideologiako eragileek ez eta euskarari buruz muturreko diskurtsoak garatzen dituztenek ere. Horri lotuta eta arestian aipatu legez, hemendik agian ondoriozta genezake galtzaile sentitzen direnek, oro har, parte hartzeko eta solasaldirako prestasun handiagoa erakusten dutela. Izan ere, mota horretako eragileek sarritan azpimarratu dute elkarren artean ezagutzeko eta bizipenak partekatzeko esparru baten beharra.

03 / GAUZATUTAKO EKINTZEN DESKRIBAPENA

03.1. HERRITARREN MAHAIK

Hiru saio egin ditugu hainbat Herritarren Mahaien bidez Elizondon, Berriozarren eta Castejonen. Oro har, Nafarroa zer den galdetu zaienean, hiru udalerrietan, *aniztasun* hitza azpimarratu da. Gai gatazkatsuez galdetuta, euskara agertu da lehenengo lekuan, eta ondoren, gizartearen polarizazioa, eta, sarritan, gai biak guztiz lotuta ageri dira. Hala, beraz, irudikapen kolektiboa, gatazkak eta Nafarroako bizikidetzaren jorratu ditugu ondorengo gidoia erabiliz:

1. Taula: Herritarren Mahaien dinamikaren gidoia

1. Irudikapenaren lanketa
-Zer da Nafarroa? (bi esaldi post-itetan)
-Zer gustatzen zaizu eta zer hobetuko zenuke Nafarroan?
-Zein hitz, irudi edo kontzepturekin lotzen duzu Nafarroa? (bi ideia post-itetan)
-Zein hitz, irudi edo kontzeptu aterako dira gainerako herrietan, zure ustez?
-Horietatik guztietatik, zeintzuk onartuko lituzke, Nafarroako ordezkari gisa, Nafarroako biztanleriaren % 80k? (gometsen $\frac{3}{4}$ berdeak lortzen dituzten kontzeptuak aukeratu)
-Zerk bereizten zaitu Nafarroako gainerako herritarrengandik? Zerk batzen zaitu haiekin?
2. Gatazken lanketa
-Zergatik ez da Nafarroa gustatuko litzaidakeen bezalakoa?
-Nafarroako gizartearen %80k onartuko lituzkeen kontzeptuak hauek dira. Baten bat gaineratuko zenuke?
-Kontzeptu guztien artean, zeintzuk dira Nafarroako gizartearen bizikidetzarako gatazkatsuenak?
-Eta zure herrian? Nola eragiten dute gatazka hauek zure egunerokotasunean?
3. Bizikidetzaren lanketa
-Bost gometsen bidez, kontzeptu gatazkatsuenak aukeratu (bozka gehien lortu duten biak landu)
-Bizikidetzaren alde zer onartzeko gai zara?
-Bizikidetzaren lortze aldera, zer proposatuko zenuke zuk?

2. Taula: Gizarte Foroen dinamikaren gidoia

1. Emaitzen kontrastea
-Zerk deitu dizue arreta Herritarren Mahietan jasotako emaitzetatik?
-Zerk harritu zaituzte?
-Zerbait bota duzue faltan?
2. Jarreraren lanketa
-Zure elkarteak/taldeak zer egiten du Nafarroan identifikatu ditugun gatazka horiek gainditzeko?
-Eta zu, zure aldetik, zer egiteko prest zaude? (bi esaldi post-itetan)
-Izendatu gatazka gainditzeko oztopoak (bost oztopo post-itetan)
-Gainerako bi herrietan atera daitezkeen oztopoak izendatu (post-itak)
3. Konfiantza
-Nola gainditu izendatu ditugun oztopoak? (post-itetan idatzi)
-Jasotako proposamen hauek egingarri ikusten dituzue? Bideragarriak dira?

BAZTANeko HERRITAR MAHAIA

2019/10/03

Arizkunenea Kultur Etxea. Elizondo (17:00-20:00)



EGITARUA

17:00 – 17:20	Partaideen harrera eta proiektuaren aurkezpena: Amaia Nausia eta Julen Zabalo
17:20-17:30	Taldeak sortu, dinamizatzailearen eta nota-hartzaileen aurkezpena
17:30-19:30	Talde dinamikak
19:30-19:45	Itxiera
19:45-20:00	Kafea

Baztango maparen analisia

Prestaturiko lehen dinamikan agerian geratzen da gure partaideek Nafarroa aniztasunarekin identifikatzen dutela, eta, aldi berean, nortasun propioa duen lurraldetzat jotzen dela. Hala ere, bigarren dinamikan ikus daitekeenez, argi geratzen da nahiko luketela aniztasun horren kudeaketan adostasun eta elkarrizketa gehiago egotea Nafarroan. Bestetik, justizia eta ongizate sozial handiagoa aldarrikatzen dute. Badira pertsona batzuk aipatzen dutenak jende irekiagoa duen komunitate bat nahiko luketela, haien integrazioa errazteko. Kontzeptu horiez gain, lurralde burujabe baten nahia eta euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabaltzea ere aipatzen dira.

Nafarroari hitz, irudi edo kontzeptu bat lotzeko orduan, komunitate abegikorra dela nabarmentzen da. Bestalde, aniztasunaren kontzeptua azpimarratzen da berriro; eta, era berean, euskara eta natura kontzeptuak agertzen dira. Horiez gain, beste batzuk ere ateratzen dira, hala nola San Fermin, Gizarte Segurantza -hainbat zerbitzuri lotua-, Foruak eta nortasun kontrajarriak dituen lurralde izatea. Galdetzen zaienean Berriozarren eta Castejonen ustez irtengo diren hitz, irudi edo kontzeptuez, ordea, abegikor izatea eta San Fermin nabarmentzen dizkigute berriro ere. Gainera, hainbat lagunek kultura edo ura bezalako gaiak ere aipatzen dituzte, baita gastronomia ere. Hala, Nafarroako gizartearen %80k onartuko lituzketen kontzeptuez galdetzen zaienean, hauek dira emaitzak: abegikortasuna, aniztasuna, kirolak (pilota), San Fermin, ura, tradizioa, gastronomia, Gizarte Segurantza, Foruak eta kultura.

Baztango biztanle gisa beste nafarregandik bereizten duenari dagokionez, aipagarria da parte-hartzaile gehienek, modu desberdinetan bada ere, adierazten dutela zerbait euskararen inguruan. Zehatzago, azaltzen dute euskararekin duten jarrerak bereizten dituela baztandarrak gainerako herritarregandik; hots, euskara berezko hizkuntzat hartzeak. Horrez gain, lur komunala, Baztango administrazioa bera, "Baztandarren biltzarra" izeneko jaia edo izaera ere aipatzen dira. Gainerako herritarrekin batzen duenari buruz galdetuta, ordea, historia, bandera, San Fermin eta, oro har, jaiak aipatzen dituzte. Gainera, berriro gastronomia errepikatzen da. Partaideetako batek dioenez, Nafarroa hitza bera da nafarrak batzen dituen.

Gatazken kudeaketaren lehen dinamikan sartuz, ikusten da, behin eta berriro agertzen da beren nortasuna garatzeko askatasun falta dagoela eta nafarrak itxiak direla irudia dutela. Aldiz, gai gatazkatsuenak aipatzean, ikusten da euskara, estatus politikoa eta identitate polarizatuak nabarmentzen direla besteen gainetik. Parte-hartzaileetako batek adierazi du desberdintasunak bilatzen bizi ohi garela, komunean ditugun puntuak bilatu beharrean, halako moldez non gatazka horiek oraindik konpontzen saiatu beharrean, gatazkan bertan jartzen baita arreta.

Ondoren, arestian aipatutako ideiek beren udalerrietan eta egunerokotasunean nola eragiten duten jakin nahi da. Nafarroako gizartearen izaera itxiak eta hizkuntzarekin dituzten zailtasunak haien integrazio osoa eragotzi dutela nabarmentzen dute pertsona batzuek. Beste batzuek, ordea, aipatzen dute kulturen arteko talka dagoela, eta batzuetan horrexek eragiten duela gatazka. Parte-hartzaile batek uste du etorkinek gure kulturara egokitu beharko luketela, eta guk haien kultura besarkatu. Beste parte-hartzaile batek, ordea, kultura aniztasunak aberatsago egiten gaituela ziurtatzen du. Berak arazoa ez du hainbeste ikusten kulturen arteko ezberdintasunean, baizik eta desberdintasun hori kudeatzen den eremu ideologikoan.

Dinamika horretan bertan iritzi talka bat egon da, azpimarragarria dena: alde batetik, pertsona batek uste du euskara nagusitzen ari dela lan arloan. Aldiz, hizkuntzari dagokionez atzerapauso bat egon dela argudiatzen dute hainbat lagunek, eta nabarmendu dute orain ez dutela, adibidez, euskaraz jasotzen arreta medikoa. Azkenik, beste esparru batzuetan, alegia, euskaratik harago, hainbat eragilek adierazten dute osasun arloan atzerapauso argia egon dela, eta beste pertsona batek dio Baztanetik garraio publikorako sarbidea zaila dela eta horrek mugikortasuna zailtzen duela.

Saio honen amaierara iritsita, bizikidetzaren inguruko dinamika egiten da eta, horretarako, bizikidetzaren alde zerbaitetan amore emateko prest egongo liratekeen galdetzen zaie. Argi dago bertaratutakoen gehiengo bat ez litzatekeela ezer lagatzeko prest egongo, beren kultura eta nortasuna galduko ez dutela edo gaudituko ez dituzten muga jakin batzuk daudela argudiatuta. Batzuek, nafarren arteko elkarrizketaren eta errespetuaren beharra nabarmendu dute. Batek, adibidez, Opus erakunde ofizial gisa onartuko luke, osasun zerbitzuetara sarbidea izatearen truke. Beste bat prest legoke euskararen alde puntuatzen duen legea kentzeko, Nafarroa osoan euskararen ofizialtasunaren truke. Azkenik, emakume batek euskara onartzen du, baina honen irakaskuntza errazteko baldintzak eskatzen ditu.

Saioa amaitzeko, bizikidetzaren aldeko proposamena egiteko eskatu zaie, eta nabarmentzekoa izan da proposamenak egiteko orduan egon den blokeo orokorra. Hala ere, hainbat proposamen izan dira euskara bultzatzeari dagokionez; adibidez, doako irakaskuntza bermatzea, hizkuntza zonifikazioa ezabatzea, euskararen ofizialtasuna Nafarroa osora zabaltzea eta etorri berrientzat euskara ikasteko erraztasun gehiago izatea. Azkenik, desberdinen arteko elkarrizketa, elkar ulertzea eta pedagogiaren aldeko asanbladak egitea proposatu da.


Argazki gehiago:

<https://www.flickr.com/photos/euskoikaskuntza/albums/72157711257689861/with/48869478037/>

BERRIOZARKO HERRITAR MAHAIA

2019/10/10

Kultur Gunea. Berriozar (17:00-20:00)



EGITARUA

17:00 – 17:20	Partaideen harrera eta proiektuaren aurkezpena: Amaia Nausia eta Julen Zabalo
17:20-17:30	Taldeak sortu, dinamizatzaile eta nota-hartzaileen aurkezpena
17:30-19:30	Talde dinamikak
19:30-19:45	Itxiera
19:45-20:00	Kafea

Berriozarreko maparen analisisia

Bigarren herritarren mahai horretan, parte-hartzaileen gehiengo argi batek aniztasuna nabarmentzen du Nafarroa zer den definitzeko orduan. Hainbat pertsonak Nafarroako historiari edota kulturari erreferentzia egin diote, eta jatorrizko lekutzat ere jo izan dute. Pertsona batek baino gehiagok aipatu du Nafarroa leku ona iruditzen zaiola bizitzeko, bertako bizi kalitatea goretsiz. Bertako gastronomia edo identitateen arteko polarizazioa nabarmendu duen jendea ere egon da Nafarroa zer den definitzeko orduan. Bestalde, Nafarroari nortasun jakin bat eman nahi izan dion jendea ere egon da eta, hartara, Euskal Herriko probintzia edo zati bat dela esan izan da.

Bilkura honetan egin den bigarren dinamikan, Nafarroako aniztasuna, aldarrikatzailea eta erakargarria izatea gustuko dutela adierazi dute hainbatek. Beste batzuek, ordea, kulturari egin diote erreferentzia, nafarren ezaugarri direla dioten nobleziari, naturari, gizarte zerbitzuei, euskarari, Erriberari eta zezenketei, eta bizi-kalitatea nabarmendu dute berriro ere. Kontrara, jende askok uste du beharrezkoa dela Nafarroako gizartea gehiago zabaltzea. Izan ere, burugogorrak, itxiak eta bereak omen dira. Dinamika horretan bertan, hainbat partaidek adierazi dute ez zaiela gustatzen Nafarroako alde atzerakoia eta kontserbadorea. Beste pertsona batzuek diotenez, ez dute gustuko euskararekiko askatasun eta errespetu falta, horrela adierazten dutelarik: errespetua guztiontzat eskatuko beharko litzateke, euskararekin pluralagoa izan ahal izateko, adibidez.

Nafarroari lotutako hitz, irudi edo kontzeptu dinamikari dagokionez, askotariko kontzeptuak atera dira. Horien artean, askotan errepikatzen dira honako hauek: aniztasuna, ongizatea, kolore gorria (Osasunarekin, banderarekin, jaietako zapiarekin, txistorrarekin eta pikillo piperrekin lotuta). Horiez gain, Foruak eta bertako natura ere atera dira hainbatetan. Komunitatea, elkartasuna, zezenketak, gastronomia, osasuna, San Fermin, Nafarroako mapa, jatorria, gorria eta zuria, jota... bezalako hitzak ere atera dira.

Galdetu zaienean Elizondon eta Castejonen zer hitz, irudi eta kontzeptu aterako zirela uste zuten, gehien aipatu zena euskaldun berba izan zen; baita San Fermin, berde kolorea, jaiak, osasungintza, tauromakia... Aipagarria da nola erabiltzen dituzten *Euskal Herria* eta *euskalduna* kontzeptuak Elizondori erreferentzia egiteko orduan, eta, aldiz, Castejonez hitz egitean, Espainia erabiltzen duten. Bestalde, gainerako bi herrietan atera diren ura, nortasun kontrajarriak edo Nafarroa harrera lurralde izatea ere errepikatu dira Berriozarren.

Gure partaideek uste dute izendatu dituzten kontzeptuen artean Nafarroako biztanleen %80k hainbat kontzeptu onartuko lukeela. Hala nola, ongizatea, komunitate izaera, nafar izateko harrotasuna, elkartasuna, San Fermin, jaiak, San Frantzisko Xabierkoa... aniztasuna nabarmendu zen beste batzuen gainetik. Nahiz eta hainbat kontzeptu ere atera diren, ongizatea, harrera-lurraldea, Foruak, folklorea, espainola, gastronomia... besteak beste.

Berriozarreko bizilagunek Nafarroako gainerako herrietatik bereizten dituzten gaiak dagokionez, gehien errepikatu dena herri barruan aniztasun handiagoa izatea izan da. Era berean, immigrazioa Berriozarren beste leku batzuen gainetik nabarmentzen dela azaldu dute. Beste batzuek ere aipatu dute elkartasun aipagarria dela eta borrokarako sena dutela. Aitzitik, batzen duenari dagokionez, nabarmendu da aniztasun politikoa, bitxia bada ere, batzen dituen zerbait

dela, komunean dutelako. Gainera, berriro ere nabarmendu da jendea itxia dela eta “koadrilismo” handia dagoela. Parte-hartzaile batek baino gehiagok azpimarratu nahi izan du Nafarroako gizartea borrokalaria eta burugogorra dela. Aniztasun politikoa, Osasuna, euskara, nafar sentimentua eta administrazio eraginkorra ere aipatu dituzte.

Nafarroa zergatik ez den haiei gustatuko litzaiekeen bezala galdetuta, arrazoi ezberdinak azaldu dituzte. Batek baino gehiagok Opus aipatu du, baita eskuin “kazikil” bati ere eta euskararekiko jarrerari erreferentzia egin die. Gainera, identitateen polarizazioa aipatu dute, eta horren ondorioz, nortasunen instrumentalizazio politikoa. Azken horrekin identitateen arteko talka egon da, parte-hartzaileetako batek esan baitu Nafarroak duen arazorik handiena identitateari dagokionez, bere aniztasun handia dela, elkarren artean oso ezberdinak diren hiru Nafarroa daudela argudiatuta. Hala ere, beste kide batek argitu nahi izan du bere iritziz arazoa ez dela hori; izan ere, Nafarroa ez da horren desberdina, eta politika da herritarrak banatzen dituen.

Elizondon bezala, Nafarroako gai gatazkatsuenak izendatzeko orduan, euskara eta nortasun kontrajarriak izan dira. Gainera, gure partaideetako pare batek erlijioa eta haren balio tradizionalak gai gatazkatsutzat jo dituzte. Opus, Nafarroako Unibertsitatea eta Unibertsitate Klinika ere aipatu dira. Azkenik, tauromakia, terrorismoa, ekologia, ikurrak, aurrekontuak eta bidegorria agertu dira. Sinbologiaren gaiari dagokionez, iritzi ezberdintasun bat egon da. Parte-hartzaile batek Nafarroak beti bandera gorria izan duela eta bestea ikurriña zela esaten zuen bitartean.

Aurreko paragrafoaren harira, gatazka horiek ~~beren~~ udalerrian nola eragiten duten eta haiei pertsonalki nola eragiten dieten galdetu zaie. Berriozarren lagun taldeak homogeenagoak direla eta bestela hatzarekin seinalatzen zaituztela esan dute hainbat lagunek. Pertsona batek baino gehiagok komentatu du euskarari ezarritako zailtasunek min emozionala sortzen dietela. Beste parte-hartzaile batek, ordea, adierazi du euskara nagusitzen ari dela administrazio publikoan. Gure partaideetako batek bere senarrari sakabanaketa, espetxeratzea eta tortura jasan dituela adierazi du, eta beste batek tauromakiaren alde egoteagatik ika-mikak izan dituela adierazi du.

Bilkura honekin amaitzeko, atera diren gai gatazkatsuenetan bizikidetzaren alde zer egiteko prest egongo liratekeen planteatu zaie, eta bizikidetzaz hori hobetzeko zer proposatuko luketen. Hemen ere zailtasunak nabari dira lehenengo galderari dagokionez. Argi dute denek errespetua dela funtsezkoena, baina gai zehatzagoetara iristeko orduan iritzirik eza ageri da.

Proposamen batzuk atera dira, hala ere. Batek lurraldetasunaren gaia alde batera utziko luke denontzako euskara ikasteko aukera egotearen truke. Beste pertsona batek adierazi du ikurren legearen ezarpenean amore emango lukeela, inolako arazorik gabe euskaraz hitz egin ahal izateko bitarteko gehiagoren truke. Beste bat prest legoke euskara Nafarroa osoan askatasunez erakutsi eta ikasi ahal izateko. Parte-hartzaile batek adierazi du malgutasun handiagoa egon beharko litzatekeela bi hizkuntzen aldetik, nahiz eta euskarak gehiago eman behar duen. Azkenik, beste pertsona bat nortasun guztiak onartzeko prest agertu da.

Honetaz guztiaz gain, hainbat gauza proposatu dira: euskararen jatorriari buruzko hitzaldiak Nafarroan, euskara Nafarroa osoan ofiziala izatea, oposizioetan euskara puntuatzea eta politikariek euskara eta sinboloak instrumentalizatzeari uztea. Bestalde, kontrako identitateen

gaiari dagokionez, gaiaren inguruan eseri eta hitz egitetik erabakitzeko gaitasunera eta erreferendum bat egiteraino proposatu da.

Argazki gehiago:

<https://www.flickr.com/photos/euskoikaskuntza/albums/72157711358208816/with/48906894868/>

CASTEJONEKO HERRITAR MAHAIA

2019/10/17

Castejoneko Museoa. Castejon (17:00-20:00)



EGITARUAU

17:00 – 17:20	Partaideen harrera eta proiektuaren aurkezpena: Amaia Nausia eta Julen Zabalo
17:20-17:30	Taldeak sortu, dinamizatzaile eta nota-hartzaileen aurkezpena
17:30-19:30	Talde dinamikak
19:30-19:45	Itxiera
19:45-20:00	Kafea

Castejongo maparen analisisia

Herritarren Mahaien azken saioarekin hasita, Nafarroa zer den galdetu diegu parte-hartzaileei. Berriro ere aniztasuna agertu da, eta horrez gain: gastronomia, natura, kulturalki aberatsa dela eta abegitsua, hurbila eta irekia dela. Polaritatea, Nafarroaren baitako banaketa, Nazio-Estatutik probintzia bakarreko komunitatera, San Ferminak edo Foruak ere aipatu dituzte.

Gure eragileei Nafarroatik gehien gustatzen zaiena galdetuta, erantzuna bertako jendea eta paisaia izan da. Gainerakoan, hurbiltasuna, natura, osasuna, kultura, jaiak, haien balio handiak, kultura ondarea... bezalako gauzak esan dituzte. Ez dute gustuko, ordea, Opus, eskuineko joera, arrazakeria, bitan zatitutako Nafarroa, kultura falta, lurralde desberdintasuna eta esku-hartze politikoa. Altsasuko kasua jarri da adibidetzat; partaide bati ez zaio ondo iruditzen beste erkidego batzuetako jendea etortzea eta Nafarroakoa bakarrik den kasu batean sartzea.

Castejongo biztanleek Osasunarekin, gorriarekin eta gastronomiarekin lotzen dute Nafarroa. Horiez gain, Foruak, Bardea, jota, ibaia, San Fermin, arrano beltza, hizkuntzak (euskara, gaztelania eta frantsesa), turismoa, Indargorri, identitatea... Elizondon eta Berriozarren ustez atera denari buruz galdetuta, hauek dira izendatutako kontzeptuak: gastronomia, herri kirolak, euskara, gure tradizioez eta festez harrotasuna, pilota, klima, folklorea, izaera...

Nafarroako %80k onartuko lituzkeen kontzeptuak erabakitzeko orduan, gastronomia, Osasuna eta kolore gorria nabarmendu dira egin ditugun hiru mahaietatik bitan. Hauez gain, turismoa, San Fermin, pilota eta tradizioak ere aukeratu dituzte Nafarroako %80ren ordezkari gisa. Gainera, geroago, hainbat kontzeptu atera dira: San Frantzisko Xabierkoa, Foruak, Foru polizia, Opus, osasuna, ohiturak eta Nafarroako mapako lepokoa.

Castejongo biztanle gisa trena, kultura aberastasuna eta nazionalitate aniztasuna, Ebro ibaia, karedun ura eta ospitaleko jendea izateak, besteak beste, gainerako nafarregandik bereizten dituela uste dute. Aitzitik, mugak, “koadrilismoa”, osasuna, nafar sentimendua eta tradizioekiko errespetua Nafarroako beste edozein biztanleri lotzen diotela uste dute.

Iruditzen zaie Nafarroan bakoitzak berea defendatzen duela elkar ulertzera iritsi gabe, arazo larriak daudela D eredia ezartzeko, Opus indartsu bat dagoela, kudeaketa txarra egon dela azken urteotan eta aniztasuna onartzeko arazoak daudela. Honakoa dio partaide batek Opusen inguruan: “Opus ez da nafarrez elikatzen, filosofian eta kontzeptu ekonomiko batean oinarritzen da”.

Ondorioz, gairik gatazkatsuenak, beste behin ere, euskara eta polarizazio politikoa dira. Eragileetako batek esan du ez duela uste arazoa euskararena denik, baizik eta ematen zaion erabilera politikoa: “Nik ez dut uste arazoa euskaran dagoenik, egiten den erabilera politikoa baizik”. Beste parte-hartzaile batek esan du agian ez dela arazoa, baina jende asko ez dela tolerantea hizkuntzarekin. Beste pertsona batek, ordea, Nafarroan dagoen gatazkarik handiena Euskara dela adierazi du, eta beste parte-hartzaile batek esan du euskara ez duela gustukoa. Azken udalerrri honetan, memoria historikoa, immigrazioa eta gizarte politikak ere beren gatazken ikuskeran batzen zaizkie. Gainera, euskal kultura, hezkuntza sistema, sinbologia, hizkuntzaren eta sinboloen politizazioa eta eliza eta espoliazioa bezalako kontzeptuak atera dira.

Gai gatazkatsu horiek udalerrian eta beren eragileen bizitzetan dute eragina, eta horien artean nabarmenetako bat arrazakeria izan da belaunaldi berriengan. Parte-hartzaile batek azaldu duenez, oso ongi iruditzen zaio kartel guztiak euskaraz, gaztelaniaz eta ingelesez egotea. Baina gure partaide arabiarretako batek gogorarazi dio kartel horietan arabiera falta dela. Era berean, euskara eta euskal kultura politikoki nola instrumentalizatzen diren aipatu dute, Olentzeroren ospakizuna gatazka izatera iritsiz.

Onartzeko prestasunagatik galdetzen zaienean, oro har, ez zaie proposamen zehatzik ateratzen, baina ziurtatzen dute haiek ez dutela arazorik Nafarroako errealitatea onartzeko. Hala ere, badira bi proposamen zehatzago: immigrazioa eta euskararen irakaskuntza askea, Nafarroako hizkuntza gisa onartzea.

Azkenik, zenbait proposamen plazaratu dira Nafarroako gizartearen barruan bizikidetzaren hobearren alde: eremu bakoitzeko egoeretara egokitutako hezkuntza-sistema bat, euskara ez politizatzea, auzitegiek euskararen arloan esku ez hartzea, seme-alabak D ereduan zergatik matrikulatzen dituzten aztertzea (arrazakeriagatik edo hizkuntzagatik bada). Bestalde, etorkinen integrazioa eta Gabonetako bazkari eta azokatxoak beharrezkotzat jotzen dituzte, ezberdinen arteko topagune gisa; horrez gain, hezkuntzan eta osasunean inbertsioak ere egiten dituzte.

Argazki gehiago:

<https://www.flickr.com/photos/euskoikaskuntza/albums/72157711433508438/with/48934108108/>

Nafarroako maparen analisisia

Ikusi ahal izan da hiru kasuetan gehienek aniztasun hitza erabiltzen dutela Nafarroa zer den definitzeko. Gainera, leku guztietan aipatu dute nolabait honen nortasuna. Era berean, nortasun kontrajarriak daudela aipatu dute. Bestetik, guztietan erreferentzia egin da Nafarroa beren kulturaren edo ohituren edo historiaren parte dena: *kultura aberastasuna* edo *kultura bitxia*. Era berean, hiru herrietan, beren nazio-Estatua identitate hainbat modutan adierazi da: *Euskal Herriaren zati bat*, *orain probintzia bakarreko komunitatea den nazioa-Estatua* edo *Euskal Herria*.

Bai Berriozarren, bai Castejonen, gastronomia nabarmendu da Nafarroa zer den esateko. Elizondon galdera honetan aipatu ez bada ere, *hitzaren, irudiaren edo kontzeptuaren* dinamikan egin da.

Elizondon bigarren galdera Berriozar eta Castejonekiko modu ezberdinean egin da; aipatutako lehen udalerrian, honela formulatu delarik: *nola gustatuko litzaidake Nafarroa izatea?* Hurrengo bietan, ordea, Nafarroatik gehien gustatzen zaiena eta hobetuko luketeena zer den azaltzea proposatu zaie. Beraz, ikusten da baztandarrei aniztasunaren aurrean Nafarroan elkarrizketarako borondate handiagoa egotea gustatuko litzaikeela. Beste batzuek, berriz, pertsona migratzaileen integrazioarako Nafarroa irekiago baten beharra aipatzen dute. Azkenik, bere etorkizunari buruz erabaki ahal izateko borondatea eta euskara Nafarroa osoan ofiziala izateko nahia azpimarratzen da.

Berriozarreko eta Castejongo biztanleei Nafarroatik gustatzen zaizkien kontuei dagokienez, hainbat iritzi dute komunean: *kultura, aniztasuna, natura, bertako jendearen noblezia eta gizarte-zerbitzuak* (osasuna, hezkuntza ...). Bestetik, hau da gustuko ez dutena: klima hotza, eskuinerantz dagoen joera politikoa, Nafarroa polarizatua egotea; gainera, uste orokorra da euskararekin eta identitatearekin egiten den instrumentalizazio politikoa.

Nafarrak beren komunitatea zein hitz, irudi edo kontzepturi lotzen duten galdetzen zaienean, zenbait kontzeptu errepikatzen direla ikus daiteke: *aniztasuna* Baztanen zein Berriozarren izendatu dute. Hala ere, *Foruak* hiru udalerrietan izendatu dituzte; *San Fermin* edo *natura* modu ezberdinetan adierazi bezala (hitzarekin berarekin edo kolore berde eta marroiekin). Bai Elizondon baita Castejonen ere *euskara, arrano beltza* eta *Osasuna* atera dira; nahiz eta Castejonen euskara hizkuntzen barruan sartu, Elizondon arrano beltza, arranoa bezala besterik ez, eta Berriozarren Osasuna, kolore gorriaren barruan. Bestalde, kolore gorria ere nabarmendu da Berriozarren eta Castejonen. Gainera, lehen aipatutako bi udalerrietan, *jota* Nafarroa identifikatzen duen elementu gisa ere seinalatu da.

Gainontzeko udalerrietan esango zutenari buruz aipatu dituzten hitzak, irudiak edo kontzeptuak aztertuta, ikusten da bai Berriozarrek eta bai Castejonek Elizondon euskara esango luketela esan dutela, eta asmatu dutela. Era berean, Elizondon eta Berriozarren Erriberan *ura* aipatuko zela adierazi zuten, eta Castejonen agertu da. Dinamika honetan bertan, *gastronomia* aipatu dute, eta Berriozarren, aurrekoan; hau da, hitza, irudia edo kontzeptua dinamikaren lehen zatian. Ariketa honen lehen zatian Baztango partaideek Nafarroako armarrria seinalatu dute, kontrako identitateen ordezkari diren arrosa eta kateekin. Ariketa honen bigarren zatian, ordea, Berriozarreko partaideak izan dira kontrako identitateei erreferentzia egin dietenak.

Nafarroako biztanleen %80k kontzeptu horietako zein onartuko lukeen planteatu denean, *San Fermin, gastronomia, Foruak, kultura (ohiturak, tradizioak, folklorea...)* eta *gizarte-ongizatea (gizarte-segurantza eta osasuna)* onartu dituzte hiru udalerriek. *Aniztasun* kontzeptua, ordea, Elizondon eta Berriozarren baino ez dute onartu. Castejongo ariketa honetan atera ez delako dela uste bada ere, aurretik agertu delako. Egoera berean aurkitzen gara nafar izaerarekin

lotutako hitzekin, hala nola *abegikor izatearekin* edo *elkartasunarekin*. Kirola ere agertzen da; zehazkiago, *pilota* elementu komun gisa, bai Elizondon, bai Castejonen. Udalerri horietan bertan, *San Frantzisko Xabierkoaren* irudia dugu.

Beren herriko edo hiriko biztanle gisa Nafarroako gainerako herrietatik ustez bereizten duenari dagokionez, bitxia da nola herri guztietan nabarmendu duten beren izaera (*abegikor izatea* edo *elkartasuna*). Badirudi nafar oro pertsona *abegitsu* eta *solidarioa* sentitzen dela, baina gainerako lurraldeekin alderatuta, bere ingurunea bereziki *abegitsua* dela sentitzen du. Azpimarratzekoa da, halaber, Berriozarrek eta Castejonek Nafarroako gainerako biztanleengandik bereizten duten *aniztasun handia* azpimarratu dutela. Alderdi ezberdinetan egiten duten arren; Berriozarren aniztasun politikoa gehiago aipatzen dute, eta Castejonen aldiz, kulturaz aritzen dira, biltzen duen *immigrazio handiagatik*. Hala ere, bai Berriozarrek bai Castejonek *immigrazio tasa* altuak aipatu dituzte. Elizondok, ordea, argi uzten du bertakoen *bereizgarritasun funtsezko bat euskara dela*; eta hala dela dirudi, ez baita beste udalerrietan beren *bereizgarri modura* atera.

Nafarroako herritarrek batzen dituzten elementuei dagokionez, aipatuena *administrazioa* eta *nafar sentimendua* izan dira. Gainera, Elizondon eta Berriozarren *Osasuna* aipatu dute, eta Berriozarren eta Castejonen *koadrilak*. Azpimarratzekoa da Berriozar, *sentsibilitate guztiak biltzen dituelako* hau zen hiria izanik, bertan euskara izendatu da elementu bateratzaile gisa.

Nafarroako maparen azterketaren lehen zati hori atzean utzita, gai gatazkatsuenen esparrua dago. Atal horri hasiera emateko, Nafarroa zergatik ez den nahiko luketen bezalakoa galdetu zaie. Bai Berriozarren, bai Castejonen, Oposizio egin diote erreferentzia. Bitartean, Elizondon beren askatasuna garatzeko askatasun falta dagoela azaltzen dute. Berriozarren eta Castejonen adierazi dute euskararekiko jarrera txarra eta Castejonen D eredu ezartzeko zailtasuna.

Nafarroan izan diren gai gatazkatsuenen barruan, gehiengo zabal baten ustez, euskara izan da gehien nabarmendu dena. Horrela argi utzita, iparraldetik hegoaldera, Nafarroan, euskara eztabaidagai dela. Bigarren gai gatazkatsuenen, gure partaideek horrela azalduta, Nafarroako gizaratearen identitateen polarizazioa izan da. Gainera, beharrezkoa da azaltzea, askotan, eragileek gai hau euskararekin lotu dutela, lotura estua dutela agerian utziz. Era berean, egokia da aipatzea Elizondon estatus politikoaren gaia euskara bezain gatazkatsutzat jo dela, baita identitate polarizatuena ere. Azkenik, azpimarratzekoa da Castejonen *immigrazioa* eta memoria historikoa gai gatazkatsu gisa izendatu dituztela behin baino gehiagotan. Hala ere, bai Berriozarren, bai Castejonen, *erlijioa, eliza eta espolioazioa* eta haien balio tradizionalak aipatu dituzte.

Gai gatazkatsuenek udalerri bakoitzean eta gure partaideetako bakoitzean duten eraginari dagokionez, askotariko egoerak aurkitzen ditugu, funtsezko faktore komun batekin: euskara. Elizondon azaldu dute euskaraz *administrazio publikoan* askotan ez dituztela euskaraz jasotzen, beste pertsona batek esan digu euskara nagusitzen ari dela. Gauza bera kontatzen digute Berriozarren, batzuk euskara inposatzen ari denaren ustea izanik eta beste batzuk euren eskubideen errespetuan aurrera egiten saiatzen ari direnaren iritzia izanik. Egia bada, Castejonen

hainbat pertsonak aipatu dutela ez dagoela gatazka handi bat euskararekin, ez baitago gizartean presente. Hala ere, parte hartzaileetako batek esan du eragiten diola. Gainera, euskararekiko tolerantzia nahikorik ez dagoela azpimarratu dute. Pentsa daiteke Castejonen euskara presente ez goteak, neurri batean, gatazka horren ondorio izan daitekeela.

Bizikidetzaren hobe baten alde zer emateko prest dauden galdetu zaienean, gehiengo zabal batek desberdinen arteko elkarriketaren eta errespetuaren aldeko apustua egiten du. Beste batzuek, berriz, emateko ezer ez dutela aipatzen dute. Jarrera hori dutenak, gehienetan, porrotaren edo biktima izatearen sentazioa dutenak izaten dira; horregatik, pentsatzen dute ezin dutela eta ez dutela beste ezer laga behar. Bestalde, ikusten da, zerbaitetan amore emateko prest dagoen jende gehiena, beti, beste zerbaiten truke dela. Horrelaxe, Berriozarreko adibidea dugu, non parte hartzaile bat lurraldetasunaren gaia baztertzeko prest dagoen euskara Nafarroa osoan ofiziala izatearen truke. Edo Elizondoko adibidea. Hemen parte hartzaile batek Opus erakunde ofizial gisa onartzen duela dio, trukean herritar oro bere sistema medikoaz baliatu ahal izateko.

Euskararen gaiari dagokionez, euskara bultzatzea proposatzen dute (ikasteko bitartekoak, euskararen jatorriari buruzko hitzaldiak Nafarroan...), Nafarroa osoan ofiziala izan arte edo oposizioetan puntuatu arte. Estatus politikoari dagokionez, Berriozarretik erreferendum bat egitea proposatu dute. Castejonen etorkinen integrazioaren beharra azpimarratzen dute, gazteriarentzako kontzientziazio handiagoa edota nolabaiteko topaketak proposatuz, elkar ezagutzeko eta integrazioa errazteko.

02.3. GIZARTE FOROAK

Saio bana egin dugu Elizondon, Berriozarren eta Castejonen. Horietan, Herritarren Mahaietatik irtendako edukien eta ondorioen aurkezpena egin dugu eta ondoren bertako eragileekin kontrastatu ditugu horiek, indar berezia jarritz bizikidetzaren inguruko gaietan. Hala, Baztango Gizarte Foroak zenbait partaideri arreta deitu die euskara gatazkatzat hartzeak. Izan ere, baztandar talde honek euskara Nafarroa ezaugarritzen duen aniztasunaren parte ikusten dute. Hori dela eta, bitxia egin zaie Nafarroako aniztasuna onartzea eta balio positibo modura hartzea, baina euskara gatazka gisa hartzea. Berriozarren ere, euskararen gaiak garrantzia handia hartu du. Castejonen, aldiz, nahiz eta gai gatazkatsutzat jo, ez dute horren kudeaketarako beharrik ikusten.

02.3.1. GIZARTE FOROEN LABURPENA

Oro har, kontsentsua eta ezberdinen arteko elkarrizketarako esparruak sortzeko lan egiten dute foro horietan parte hartu duten ordezkariak. Hala ere, Castejonen nahikoa argi geratu da lehentasuna immigrazioaren auziak duela; eta horretan jartzen dutela indarra.

Azaldutako gatazkak gainditzeko zenbait oztopo izendatu ziren Gizarte Foroetan: jarrera hertsia eta desberdintasun sozioekonomikoak, bestearen minaren eta bizipenen aitortza falta, ezberdinen arteko komunikaziorik eza, politikarien konfrontaziorako jarrera eta euskararekin egiten den erabilera politikoa, hain zuzen ere.

Herritarren Mahaietan bizikidetzak hobe bat lortze aldera, orokorrean, jendeak desberdinen arteko elkarrizketaren eta errespetuaren alde egiten du. Gizarte Foroetako partaideak, norabide berari tiraka, eremuen arteko konfiantza indartzeko eta elkar ezagutzeko topaketan, jardunaldien zein foro iraunkorren modura proposamena josi dute Nafarroako erdialdetik iparraldera

BAZTANEKO GIZARTE FOROA

2019/10/30

Arizkunenea Kultur Etxea. Elizondo (17:00-19:30)





EGITARUA

17:00 – 17:20	Partaideen harrera eta Komunitate Guneen edukien eta ondorioen aurkezpena: Julen Zabalo eta Nerea Blanco
17:20-17:30	Taldeak sortu, dinamizatzaile eta nota-hartzaileen aurkezpena
17:30-19:00	Talde dinamikak
19:00-19:10	Itxiera
19:10-19:30	Kafea

Baztango maparen analisisia

Emaizen kontrastea

Baztandar batzuei arreta deitu die euskara gatazka iturburutzat hartzeak, are gehiago, aniztasunaren kontzeptua indartu den Herritarren Mahaietan. Hau da, baztandarrek euskara aniztasun horren parte bezala ulertzen dute; eta beraz, bitxia iruditu zaie Nafarroako aniztasuna onartzea baina euskara gatazka gisara ulertzea. Modu berean, euskara nahiz eta gatazka modura atera den, zentzu positibo gisa ere atera izanak arreta deitu die. Partaide batek dio arreta deitu diola euskararen gaia hain bizia izateak Nafarroa osoan.

Bestetik, Gizarte Foro honen partaideei harridura sortu die, berriro ere, euskararen gaiak: hiru herrietan *problematiko* gisa identifikatzea, euskara bera arazotzat hartzea. Batzuk nekea adierazten dute, beti euskaldunei malguak izatea dagokiela adieraziz edo euskara hutsean lan egiteagatik jasandako bazterketa azalduz.

Dinamika honen amaieran, partaide batek esan du faltan sumatu duela beste gatazka mota batzuk agertu ez izana, hala nola, Mutil Dantzen arazoa, ingurumen gatazkak, Abiadura Handiko Trena, besteak beste.

Jarrerren lanketa

Dinamika honetan bi galdera proposatu zitzaizkien: beren taldeek zer egiten duten identifikatu ditugun gatazka horiek gainditzeko eta beraiek, norbanako modura, zer egiteko prest zeuden gatazka horiek arintzeko. Lehenengo galderari dagokionez, erantzun aunitz eta anitzak jaso dira; baina gehienak, euskararen sustapenari begira azaleratu dira. Hala nola, Xaloa telebistatik euskararen normalizazioan laguntzen dute, Institututik proiektu linguistikoak martxan jartzen dituzte eta A ereduak euskarara gerturatzen saiatzen dira, Ikastolako guraso elkartetik euskal kulturaren transmisioan lanean dihardute, Xorroxin irratitik euskara hedatu, Abesbatzatik herri ez euskaldunetan euskarari presentzia eman kantuarien bidez, eta abar. Hala ere, Txirrindula taldeko ordezkariak esan du haiek gatzelaniaz mintzo direla denek ongi ulertzeko eta Dantzara Plazara elkarteko ordezkariak aipatu du beren taldean bakoitzak nahi duen hizkuntzan mintzatzen dela. Horrez gain, ideologia aniztasunarekiko errespetua ere partaide askok azpimarratu dute.

Bigarren galderari erreparatuz, taldekide batzuk besteak errespetatzeko prest daudela adierazi dute. Beste batzuk, ordea, euskararekiko konpromisoan jarri dute beren borondatea. Halaber, elkar trukean eta bi aldeek elkar ulertzeko eta ezagutzeko ahalegina egin behar dela azpimarratu dute. Hala ere, partaide batek esan du bera ez dagoela ezer emateko prest. Oraingoan, berriro ere, etsipen edo nekearen sentipenak azaleratzen dira; batzuen iritziz, euskaldunak gehiegi onartu baitute:

“Ni ez nago prest, agian errespetua mereziko dute baina ni ez nago prest, denak eman behar dugu zerbait denek erdibide horretara heltzeko baina batzuk ez dute ezer egiten, hemen bi hizkuntza ofizial daude eta ez da errespetatzen, gainera beraiek dira biktimak”.

Oztopoak

Gizarte Foro honetan jarrera hertsia eta ekonomia arazoak izan dira azaleraturiko oztoporik nagusienak. Ekonomia modu ezberdinetan azaldu dute oztopo gisa: bai errenta desberdintasunean oinarriturik baita oinarrizko beharrak asetzea premia nagusi gisa ere. Modu batera edo bestera, gutxieneko baldintza eta baliabide batzuk beharrezkoak direla argi geratu da. Hori lortu ezean, ezinezkotzat hartzen dute oztopoen lanketa erreal bat.

Horrez gain, hainbat pertsonak oztopo gisa hartu dute indibidualismoa; haien ustez, horrek ez baitio elkarlanari mesederik egiten. Horri lotuta, bizitza eredu sozialago bat aldarrikatzen dute. Gainera, euskararen politizazioa eta Nafarroako eremu ezberdinen arteko komunikaziorik eza ere pertsona batek baino gehiagok aipatu ditu. Horren harira ere, modu ezberdinetan adierazita, baina partaide aunitzek ados izan dira oztopo handi bat politikariak eurak direla. Horrekin bat eginez, adostasun edo kontsentsu kultura falta ere sumatu dute.

Herritarren Mahaietan aztertuko genituen gainerako bi herrietan ustez aterako ziren irudiak, kontzeptuak edota sinboloak adierazteko eskatu genien. Elizondon, berriz, Berriozarren eta Castejonen aurkituko zituzten balizko oztopoez galdetu genien. Agerikoak immigrazioa eta euskara izan ziren, hainbat partaidek hala uste izan zuten eta. Batek adierazi duenez, Castejonen

immigrazioa gatazka modura azaleratuko da, bertan kultura aniztasuna handiagoa baita. Beste batzuk, aldiz, euskara baino, euskararekiko ikuskera ezberdinak aipatuko dituztela uste dute. Ildo beretik, beste batzuk identitate polarizatuak azpimarratu dituzte era ezberdinetan: nazionalismoa, nafar euskaldunek Euskadiren kopia bat nahi dutela, nafar euskaldunak erradikalak direlako ustea; euskara, euskal sentimenduaren eta ETAREN arteko nahastea, besteak beste, azaleratu direlarik. Azkenik, beste partaide batzuk jarrera hertsia edo begirunerik eza aipatu dute kultura demokratiko baten gabezia adierazi nahian.

Konfiantza

Konfiantza giro bat sortzeko eta gatazka horiek gainditzeko proposamenak pentsatzeko eskatzeko orduan, gehien errepikatzen den proposamena da gai ezberdinetako topaketak egitea, kultura eta hizkuntza topaketak, besteak beste; baita elkarlanean aritzea ere. Horiek bideragarriak izateko nafar gobernuaren eta administrazioen eskuhartzearen beharra azpimarratu dute. Horrez gain, partaide batek esan du topaketa horiek aurrera eraman ahal izateko ikasitakoa *desikasi* behar dugula, aurreiritzirik ez izateko. Bestetik, beste partaide baten aburuz, jendearen gutxieneko beharrak ase egon beharko lirateke lehendabizi; topaketa horietan mundu guztiak eta ahalik eta modu berdintsuenean parte hartu ahal izateko.

BAZTANGO MAPAREN ONDORIOAK

- Baztanen euskara, berriro ere, ardatz nagusia izan da.
- Ezberdinen arteko errespetua, elkarlana eta komunikazioaren beharra azpimarratu dira. Horretarako, topaketak antolatzea izan da gehien aipatu den ideia.
- Euskararen gaiari dagokionez, gehiengo zabal bat ez da ageri ezer emateko prest.
- Hiru Nafarroa ezberdinak mantentzea politikarien interesa dela azpimarratu da.
- Elkarlanean aritu ahal izateko, mundu guztiaren beharrak modu esanguratsuan ase behar direla adierazi da.
- Ikusmolde ezkertiar eta euskaltzalea izan da nagusi.

BERRIOZARREKO GIZARTE FOROA

2019/11/07

Kultur Gunea. Berriozar (17:00-20:00)



EGITARUAU

- | | |
|---------------|--|
| 17:00 – 17:20 | Partaideen harrera eta Komunitate Guneen eduki eta ondorioen aurkezpena: Julen Zabalo eta Nerea Blanco |
| 17:20-17:30 | Taldeak sortu, dinamizatzaileen eta nota-hartzaileen aurkezpena |
| 17:30-19:00 | Talde dinamikak |
| 19:00-19:10 | Itxiera |
| 19:10-19:30 | Kafea |

Berriozarreko maparen analisisia

Eraitzen kontrastea

Berriozarreko partaide bati deigarria egin zaio nafarrak batzen dituzten kontzeptu sakonagorik aurkitu ez izana; oso azalekoak direla iruditu zaio. Beste partaide batzuk harritu dira jendea, oro har, jarrera aldatzeko prest egon ez izanarekin eta euskara eta nortasun polarizatuak gai gatazkatsuenak izatearekin. Modu berean, beste bati bitxia iruditu zaio antzeko lekuetan antzeko gauzak atera izana, eta mahaien osaeragatik izan ote den galdetzen du. Azken dinamika honi amaiera emateko, etorkinen arazoak modu sakonago batean lantzea faltan bota izan dute. Modu berean, ezberdintasun sozioekonomikoak, langabezia eta klase sozialak bezalako gaien falta sumatu dute.

Jarrerren lanketa

Foroan izan ditugun taldeek, elkarteek edota eragileek izendatu diren gatazka horiei aurre egiteko aurrera eramaten dituzten ekintzak edota ekimenak hurrengo hauetan laburbil daitezke: Iritzi ezberdinak errespetatu, ezberdinen arteko elkarlana sustatu eta hori gauzatzeko esparruak sortu. Horrez gain, beste zenbait taldek euskara sustatzeko ekimen edota ekintza ezberdinei ekiten diete: hizkuntzen araberako esparru ez-mistoak sortzetik euskara Nafarroa osoan eskubide izan dadin lan egiteraino. AEK-ko ordezkariak uste du euskaldunak direla beti malguak direnak, bestea ulertzeko saiakera egiten dutenak. Horregatik “pilota besteen aldean dagoela” iruditzen zaio. Izquierda-Podemoseko ordezkariak, berriz, guztien arteko kontsentsu baten alde lan egiten dutela dio, horretan oinarritzen dela haien lana.

Norbanako modura zer egiteko prest dauden galdetu zaienean, hainbat partaidek normaltasunez jokatzeko prest daudela azaldu dute. Horrez gain, jendea, oro har, modu ezberdinetan adierazi badu ere, elkarlanean eta kohesiorako bidean aritzeko prest agertu da. Hala ere, hainbat pertsonak argi utzi dute, muga jakin batzuk daudela, adibidez, eskubideen bermea muga argi bat da. Hori dela eta, azaldu dute ezinbestekoa dela alde bietatik borondatea egotea: “Kohesioa da nire helburua, baina hala ere bizitzak konfliktoak ditu. Gure gizartean existitzen den polarizazioa oso gainditzeko zaila da, batez ere eskubideen aldetik bigarren mailako herritartzat hartzen nautenean”.

Oztopoak

Hainbatek uste du oztopo nabari bat komunikaziorik eza dela; argi ikusten dute ezberdinen arteko elkarlana behar dela; ezberdinen arteko eztabaida eta kontsentsua, hain zuzen ere. Hala ere, batek baino gehiagok, eskubideak ez daudela bermaturik dio eta hori oztopo nabari gisa ikusten dute. Horri lotuta, inposaketa ere aipatua izan da behin baino gehiagotan; herri honetan zenbait erabaki politiko inposatzen direla adierazi nahian. Politikariak eta politika bera ere ezbaian jarri dituzte, hauek gatazkak ez gainditzearen oztopotzat hartuz. Era berean, auzi nazionala eta bizipenen aitortza eza ere behin baino gehiagotan azaleratutako oztopoak izan dira. Gainera,

bizipenei lotuta, besteen bizipenak aitortzeko konpromiso falta dagoela agerian utzi da, horrek eragiten duen mina ere oztopo gisa kokatuz.

Askok diotenez, euskara ezarri egiten dela esango dute Castejonen, Berriozarreko partaideen aburuz, Castejonen hala ikusten baitute euskara; hori, irentsi duten mezua dela adieraziz. Aitzitik, Elizondon euskara erasotua izanaren sentipena gailenduko dela uste izan dute partaideetako batzuk. Bestetik, immigrazioari lotuta ere, hainbat gai atera dira: laguntzarik gabe datozen adin gabeko etorkinak, immigrazio politikak eta immigrazioa bera. Horrez gain, batek irisgarritasun instituzionala aipatu du. Hori Elizondon ere agertu zen. Pentsatzekoa da zentralizazioari erabat lotuta ikusten dela gaia.

Konfiantza

Oro har, elkarrizketarako eta nor bere bizipenak eta egoerak eragindako minak azaltzeko esparru seguruak sortzearen beharra azpimarratu da. Horri lotuta, elkarrekin hitz egiteko eta informazioa zabaltzeko beharra nabarmendu da. Hori bideragarria izateko, bi aldeetatik borondatea behar dela agerian uzteaz gain, ber-heztearen eta baliabideen ezinbestekotasuna aipatu da. Honi lotuta, partaide batzuk aldarrikatu dute politikariek eta instituzioek, polarizazioa areagotu beharrean, Nafarroako kohesioa bilatze aldera lan egin behar dutela

BERRIOZARREKO MAPAREN ONDORIOAK

-Partaideak elkarrizketarako prest daude, prestasuna erakutsi dute iritzi desberdinak dituen jendearekin batera esertzeko eta mintzatzeko.

-Partaide euskaldun batzuen mina eta beren bizipenen aitortzarik eza nahiko agerian geratu da. Nabaria da batzuen mina eta nekea, bizi izan dutenaren aitortza beharrezkotzat jotzen dute elkarrizketa osasuntsua bideratu ahal izateko.

-Aurrekoaren harira, aurreiritzien beldur dira batzuk, eta hori ekiditeko esparru seguruak bilatu behar direla nabarmendu da.

-Euskarak Elizondon hartu zuen nagusitasun bera hartu ez badu ere, garrantzitsuagotzat jo izan da Castejonen baino. Pentsa daiteke honekin antzeman daitekeela euskara eta nortasun nazionala lotuta daudela Nafarroaren kasuan?

-Orokorrean, euskarari konnotazio negatiboak kentzeko beharra ikusi da.

CASTEJONEKO GIZARTE FOROA

2019/11/14

Kultur Gunea. Berriozar (17:00-19:30)



EGITARUA

17:00 – 17:20	Partaideen harrera eta Komunitate Guneen eduki eta ondorioen aurkezpena: Julen Zabalo eta Nerea Blanco
17:20-17:30	Taldeak sortu, dinamizatzaile eta nota-hartzaileen aurkezpena
17:30-19:00	Talde dinamikak
19:00-19:10	Itxiera
19:10-19:30	Kafea

Castejongo maparen analisia

Emitzen kontrastea

Orokorrean, Castejonen beha daitekeen moduan, ez du ezerk harridurarik sortu. Berriozarrekin eta Elizondorekin alderatuz, bitxia izan da Castejongo herritar hauen harridura falta.

Jarrerren lanketa

Argitasun osoz antzeman daitekeenez, Castejonen gehien jorratzen den lan ildoak etorkinekin lotuta dagoen edozein gai da. Izan ere, partaideen esanetan, hau da herrian daukaten gatazkarik azalekoena. Batek baino gehiagok etorkin *gehiegi* daudela adierazi dute; eta horretan, hain zuzen ere, ikusten dute arazoa: kopuruan, alegia. Beren esanetan, hainbeste izanik, *ghettoak* sortzen dituzte haien artean eta *hazten* dira.

Nahiz eta batzuen esaldietan etorkinekin nolabaiteko gatazka ikus daitekeen, oro har, bai institututik bai eskolatik eta bai udaletik ere, hauekin barne hartzaileak izateko neurriak hartzen dituztela aipatu dute. Hala nola, institutuan murgiltze programak, Udaletik laguntza ekonomikoez gain, gaztelania klaseak eskaintzen dizkiete.

Horrez gain, Nafarroako hiru herrietan izendatu diren bi gatazka gainditzeko taldeek zer egiten duten jakin nahi izan da eta beren-beregi galdetu zaie horren inguruan. Udaletik, euskal musika talde ezberdinak, genero ezberdinetakoak, gonbidatzen dituzte. Horrez gain, eskolan urtean behin eramaten duten antzerkia bi ereduatarako dela aipatu dute, eta Olentzero ere eskolara doala jakinarazi dute.

Norbanako bezala, gatazka hauek leuntze aldera, zer egiteko prest dauden galdetu zaienean, iritzi guztiak errespetatzea eta euskara Nafarroa osoan hezkuntza sistema publikoan ikasteko aukera izatea onartuko luketela aipatu digute. Horrez gain, pertsona batek ezer ez lukeela emango azaldu du; berak ezin duela ezer egin eta ardura besteengan dagoela egotzi du. Aitzitik, iritzi honen kontra, beste batek edozer egiteko prest egongo litzatekeela aipatu du.

Oztopoak

Azaldutako gatazka gainditzeko oztopoez galdetu zaienean, ikusmolde ezberdinen artean izaten den begirune falta eta euskararen politizazioa izan dira gehien errepikatu direnak. Horren harira ere, politika bera oztopo gisa behin baino gehiagotan agertu da. Halaber, enpatia falta, bestearekiko aurreiritziak eta erlijioa ere behin baino gehiagotan agertu dira oztopo gisa. Hauez gain, etorkinei lotutako zenbait oztopo ere aipatu dute: ez direla integratzen edota etorkin gehiegi daudela, besteak beste:

“Creo que son demasiados los que tenemos, que si son menos cantidad pues si se amoldan un poco más hacia nosotros. Cuando hay tantos hacen ghettos entre ellos y eso es cierto”.

Berriozarren eta Elizondon zein oztopo izendatu ahalko luketen galdetu zaienean, gehienek Castejonen identifikatutako horiek berak izango liratekeela esan dute. Hala ere, izan dira besteren batzuk ere aipatuak: ETA, euskararekiko diskriminazio positiboa eta diktadura frankista, hain zuzen ere.

Konfiantza

Zerbait nabarmentzearren, antzeman daiteke, era ezberdinetan adierazi badute ere, partaide askok gai gatazkatsuak politikatik edo politikoa denetik aldentzearen beharra ikusten dutela. Hau azaltzeko, *gaiak politikatik at uztea* aproposa litzatekeela esan dute eta *pertsonala politikotik* bereiztea; elkarren artean izan daitezkeen tira-birak ideologekin ez direla nahastu behar adierazi nahian. Horrez gain, Nafarroan lurraldeen arteko deszentralizazioa beharrezkotzat jotzen da, eta era batera edo bestera, batek baino gehiagok aipatu du.

CASTEJONGO MAPAREN ONDORIOAK

- Etorkinen gaia gatazkatsu bezala azaleratu da, Herritarren Mahaian baino gehiago, modu nabarmenean gainera.
- Horren harira, agerikoa da ikusten dituzten premien arabera zuzentzen dituztela beren politikak edota ekintzat. Izan ere, talde modura gehien jorratzen duten gaia etorkinena da, alde handiarekin, gainera. Aldiz, nahiz eta euskara ere eztabaidagai izan den, ez dute apenas lanik egiten euskararen inguruko gatazkak leuntze aldera.
- Politikaren eremua, baliabide baino gehiago, elkarbizitzarako oztopotzat ikusten dute.

Nafarroako maparen analisisa

Baztanen, Nafarroan izendaturiko bi gatazka horiek arintzeko, bat hartzen dute ardatz: euskara. Nagusiki, euskararen inguruan lanean aritzen dira. Berriozarren ere, euskararen gaia hainbat taldek lantzen dute. Horrez gain, kontsentsua eta ikusmolde ezberdinen arteko elkarriketarako esparruak sortze aldera lanean ari dira. Beraz, euskara eta kontsentsua dira Berriozarreko taldeen lan ildo nagusiak. Aitzitik, Castejonen, Nafarroa osoan identifikatu diren gaien inguruko lanketarik ez da egiten. Bai, ordea, etorkinen ingurukoa; eta horixe da nagusia.

Norbanako modura gatazkak gainditzeko zer egiteko prest dauden galdetu zaienean, oro har, iritzi ezberdinak errespetatzeko prest agertu dira hiru herrietako partaideak. Bai Elizondon baita Berriozarren ere, ideia hau gehiago garatu dute edo pauso bat aurrerago eman dute eta elkarlanerako, elkar ezagutzarako eta kohesioaren alde lanean aritzeko borondatea erakutsi dute partaideetako askok.

Gatazkak gainditzeko oztopo nagusiei dagokienez, Elizondon jendearen *jarrera hertsia* eta *desberdintasun sozioekonomikoak* nabarmendu dituzte. Berriozarren ere jarrera oztopo gisa ikusi dute, *bestearen minaren* eta *bizipenen aitortza* falta dela agerian utziz. Horrez gain, *ezberdinen arteko komunikaziorik eza* eta *politikarien konfrontaziorako jarrera* oztopoen erdigunean jarri dituzte. Modu berean, Castejonen ere politika oztopo handi gisa izendatu dute, politikariek polarizaziorako joera dutela salatuz eta euskararekin egiten den erabilera politikoaren aurka azalduz.

Elizondon zein Berriozarren uste izan zuten Castejonen euskara eta immigrazioa oztopo nagusizat azaleratuko zirela. Egia esan, asmatu dute, Castejonen saioaren ardatzak etorkinak eta euskara izan baitziren. Era berean, Berriozarren, iruditu zitzairen Elizondon oztopo bezala euskara erasotua izaten ari denaren sentipena azalduko zela. Kasu honetan ere, zuzen zebiltzan, hala adierazi baitzuten hainbat eta hainbat partaidek saioaren memento ezberdinetan. Castejonen iruditu zitzairen Berriozarren zein Elizondon, oro har, gai berak aterako zirela. Euskararen kasuan, hala izan zen, baina, txosten honen analisisian ikusten ahal denez, modu ezberdinetan tratatu izan da euskararen gaia hiru herrietan.

Nafarroako eremu ezberdinen arteko konfiantza edota elkarbizitzarako giroa sustatze aldera, bai Elizondon baita Berriozarren ere elkar ezagutzeko eta elkarlanerako topaketak, foro iraunkorrak, jardunaldiak, esparruak... sortzearen beharra nabarmen azpimarratu da. Castejongo kasuan, aldiz, tira-birak politikatik aldentzearen beharra azpimarratu da. Horretaz gain, Castejongo herritar hauek Nafarroako lurralde desorekarekin apurtzeko deszentralizazioaren premia agerian utzi nahi izan dute.

ONDORIOAK

Herriz-herri

Oro har, garatu diren ekimenek jarritako helburuak argitzen lagundu dutela esan dezakegu. Herriak ongi aukeratuak izan dira, eta Nafarroaren aniztasunaren isla eman digute. Herrietako teknikariek egindako herritarren aukeraketa ere ongi planteatuta zegoen, baina soslai kontserbadore edo eskuindarreko herritarren gabezia nabaritu da, herri guztietan batzuk egon diren arren. Gizarte foroei dagokienez, azkenik, ez dute gehiegi sakondu Herritarren Mahaietatik ateratako korapiloetan. Zehatzago, hauxe aurkitu dugu herrietan.

Baztango Herritarren Mahaietan, euskara da gairik gatazkatsuena. Bestetik, elkarbizitzaren alde zerbait emateko zailtasunak daude, baina gehiengo zabala elkarriketarako eta errespeturako prest dagoela dirudi.

Baztango gizarte foroetan, berriro ere, euskara izan da ardatz nagusia; eta horren harira, gehiengo zabal bat agertu da ezer ez emateko prest. Horrez gain, ezberdinen arteko errespetua, elkarlana eta komunikazioaren beharra azpimarratu dira. Horretarako, topaketak antolatzea izan da ideia nagusia. Baina, hori posible izateko, adierazi da mundu guztiaren beharrak asetu behar direla modu esanguratsuan. Azkenik, hiru Nafarroa desberdin mantentzea politikarien interesa dela aipatu da. Esan liteke, oro har, ikuskera ezkertiarra eta euskaltzalea nagusitu dela.

Berriozarreko herritarren mahaietan *aniztasun* kontzeptua nabarmendu da. Halaberrez nabarmentzekoa dela diote, herria Nafarroako erdialdean kokatuta dagoelako eta immigrazio tasa handia duelako. Gairik gatazkatsuen euskara izan da berriz ere, eta horren atzetik, identitateen polarizazioa. Hemen ere zaila zaie zerbaitetan amore ematea elkarbizitza hobe baten alde, baina hitz egiteko prestasuna erakusten dute. Bestalde, baztertua sentitzearen eta beste ezer laga nahi ez izatearen iritzi hori, gorago ere aipatua, indartzen da, nahiz eta elkarriketarako prest egon.

Berriozarreko gizarte foroetan, Herritarren Mahaietan gertatu den modu berean, elkarriketarako prest agertu dira partaideak, ezberdinekin esertzeko eta mintzatzeko prestasuna erakutsiz. Hala, gizarte foroetan batez ere, partaide euskaldun batzuen mina eta beren bizipenen aitortza eza nahiko agerian geratu da. Ildo beretik, batzuk, aurreiritzien beldur dira eta hori ekiditeko, esparru seguruak bilatzea proposatu da. Euskarari dagokionez, Elizondon hartu zuen nagusitasun bera hartu ez badu ere, nagusi izan da hemen ere, eta konnotazio negatiboak kentzeko beharra ikusi da.

Gai gatazkatsuei erreparatuz, Castejonen ere, euskara da gairik gatazkatsuen, nahiz eta Castejonen bereziki gatazkatsua ez dela aipatu duten. Hartarako motiboa euskarak gizartean duen presentzia txikia izan liteke. Uste da presentzia-falta horrek berak gatazka bat adieraz dezakeela edo, neurri batean, gatazka handi baten ondorioetako bat izan daitekeela. Horri lotuta, euskararen ondoren, berriz ere, identitate polarizatuak dira bigarren gai gatazkatsuen. Baina oraingoan, ziuurrenik dituen ezaugarri sozialengatik, arreta berezia jartzen zaio immigrazioaren gaiari. Gizarte foroetan, etorkinen gaia gatazkatsu gisa azaleratu da, Herritarren Mahaian baino nabarmenago, eta zerbait egin beharra azaltzen da. Aldiz, nahiz eta euskara ere eztabaidagai izan den, ez dute apenas lanik egiten euskararen inguruko gatazkak leuntze aldera. Azkenik, aipatzen da memoria historikoa ere gai gatazkatsua dela, identitateen polarizazioari lotuta. Amaitzeko, Castejonen ere ez da azaltzen proposamen zehatzik bizikidetzan sakontzeko.

Azken gogoeta

Nafarroa anitza dela behin eta berriz errepikatu den ideia dugu. Hiru herrietan aipatu da, baina ikusi ahal izan dugunez, gutxienez hiru modu desberdinetan ulertzen da aniztasun hori. Badugu, lehenik, aniztasuna kontzeptu deskriptibo gisa, besterik ez. Aipamena egiten zaie paisaiari, gastronomiari, folkloeari edo hizkuntzari, eta berez zentzu positiboa ematen zaio, esangura politikorik gabe. Bigarrena, aniztasuna arlo politikoari lotua. Izaera ezkorra hartzen du askotan, nafarren arteko gatazka politikoa eta gizartearen polarizazioa irudikatzen dituelako. Eta

badugu, azkenik, hirugarren adiera bat, arlo kulturalari lotua. Gehienbat immigrazio berriak eragindako kultura aniztasunaz ari gara. Berez oso gai eztabaidatua da gizartean, eta horregatik, nabarmentzekoa da gure saioetan nahiko zentzu positiboa hartu duela. Oro har, jarrera abegikorra nabarmendu da kultura, ohitura eta erlijio desberdinen arteko bizikidetzan, denontzat aberasgarria delakoan. Hala ere, ezinegon argia sumatu da zenbaitetan, ez baita ikusten *besteen aldetik* integratzeko asmo sendorik.

Azkenik, bitxia da Nafarroaren ezaugarri nagusi modura aniztasuna agertzea eta aldi berean behin eta berriz Nafarroaren nortasun propio bakarraz hitz egitea. Bateragarriak dira?

Elkarrizketarako jarrera erakusten dute beti gure saioetako partaideek. Haien ustez, bizikidetzaren lantzea izan behar da ardatza nafarrek dituzten gatazketan aurrera egiteko, baina gehiegizko polarizazio politikoa eta ideologikoa ikusten dute, politikariek eta erakunde erlijiosoek sustatua askotan. Izan ere, begirune eta eztabaida baketsu faltaz kexu dira behin baino gehiagotan, eta uste dute arazoa gehiago dagoela maila politikoan eta erakunde erlijiosoetan, eta ez hainbeste herritarren ahalmenean.

Nolanahi, bizikidetzaren bidean ideia bat edo beste irudikatzen helden badira ere, ez dago proposamen argirik oztopo horiei aurre egiteko; ez dira sentitzen gai tamaina horretako erronketan eragiteko, eta zeregin hori Nafarroa mailako eragile nagusien gain jartzeko joera nagusitzen da. Hala ere, esanguratsua da, ildo honetan, proposamen batzuk mahaigaineratu direnean, batzuen erreakzioa erabateko ukazioa izan dela, gehiago ezin dutela egin esanez, eta besteei dagokiela zerbait mugitzen hastea. Polarizazioa adierazgarria izan daiteke, eta agian kultura demokratikoaren aldetik gabeziaren erakusgarri ere. Gure azterketaren barruan kultura demokratikoaren sustapenerako aukerak ere ardatz gisa agertzen zirenez, kontuan hartzeko hipotesia edo susmoa da etorkizunera begira.

Nafarroan gatazka eragiten duten gaien artean, euskara da alde handiz aipatuena. Euskara gatazka iturri nabarmen modura ageri da askoren iritziz, eta are okerrago, adostasunerako aukera gutxi ikusten zaio. Esan gabe doa, gatazka arintzeko premia larria ikusten da oro har, baina negoziatzeko tartea benetan txikia antzematen da: batzuek, adibidez, euskara urratu ezineko eskubide modura ulertzen dute, Nafarroa osoan bete beharrekoa; eta besteek, aldiz, onenean jota, guztiz gai arrotz gisa ikusten dute, haiekin inolako harremanik ez daukana, eta are okerrago, txarrenean jota, baita elementu diskriminatzaile gisa ere hartzen dute, lan arloari dagokionez, esate baterako.